


U

Ander Lipus

Aurten “jokalari berria”, hau da, Euskal Herriko aktore errebelazio saria eman diote bere lankideek.

IRUdia



perretxikoak

Argazkian azaltzen den
perretxiko sorta eder hau
aurkitu zuen gure
argazkilariak Algorta erdiko
lorategi batean;
izan ere, bilatzen duenak...
aurkitzen du.

ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

ARGITARATZAILEA: Boluntzaria E.R.E.
 HELBIDEA: Amesti 6, 4. solairua, 5. hellegia 48990 GETXO
 e-mail: aldizkari@getxokost.net / Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37
 ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
 ERREDAKZIOA: Fati Eskerra, Andoia Lloso, Raul Agirre
 ARGAZKI ARDURADUNA: Mikel Martinez
 TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Butron
 INFOGRAFIA: Guillermo Almagia
 MARRAZKILARIA: Goñka Vázquez
 KOLABORATZAILERAK: Bitor Egurolo, Jokin de Pedro, José Ignacio Lobo, Inaso Arana, Gaizka Escudero, Unai Elorriaga, Algortako Bertolari Eskola, Akaitze Kaminaga, Xabier Paia
 ADMINISTRAZIOA: Konrado Mugerra
 PUBLIZITATEA: Amaia Bilbao (94 491 13 37)
 FILMAZIOA: ARGIA / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799

Osoak edo zatiak, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, ezinezkoak dira.

© BOLUNTZARRETA

Aldizkari hau Euzko Herriko herri aldizkari eta osakara elkarrean TOPAGUNEko partidea da

Aldizkari honek Bizarrak Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jaso du

Salsidu 5, 1. solairua 48990 Algorta

TOPAGUNEA

GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udaltzaren dirulaguntza jaso du


Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

Kostuak direla eta, ezinezkoa zaigu aldizkaria egin, inprimatu eta zuoi musutruk etxera bidaltzea.

gogoratu,
 beharrezkoa da
 ORDAINTZEA
 hilabetero aldizkaria
 etxean
 jasotzeko

2.000 pta. / urte
 94 491 13 37



ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

AZKEN HILABETEOTAN Espainiako armada Getxorekin gustatuta omen dabil, izan ere, birritan egin digu bisita. Urrian, Ereaga hondartzan azaldu ziren militarrek (irakurle batek, Tamarises-en zegoen kafe bat hartzen eta handik bertatik, beldurra dismutatu ezin barik, erredakzio honetara deitu zuen). Gero jakin genuen, militarrek ez ziotela baimenik eskatu udalari. Ekintzaren jakitun bakarrak herri honetako alderdi horretako zinegotziak omen ziren, han ikusi genituen eta, armadaren "egitadak" miresten ezer ulertzen ez zuen jendearen artean. Bigarren bisita, beste era batekoa, orain dela astebeite izan dugu. Derrigorrezko soldaduzka egin beharko duten gazteen azken zozketa egin zen egun berean hain zuzen ere. Algortako kaleetatik ibili ziren errukluten bila, antza, armada profesional hori pertsonalez betetzeko propagandan xahutu dituzten 4.000 milioiek ez dutelako fruiturik eman. Gero jakin genuen Getxoko Antimilitaristak zirela, moztortua, hori bai, oso profesionalak ematen zuten!

San Jorge eta Herensugea



[extra] jaiak

Jaietako argazki liburuxka eskuratu nahi duenak aldizkarira deituz lor dezake. Ale gutxi batzuk geratzen zaizkigu.

“Orain, natura inoiz baino gehiago erasotzen ari gara”

Naturazale amorratua da Xabier. Nogibidez, baso ingeniari teknikoa eta natura kudeatzailea. Hainbat ikerketa eta argitalpen eginak ditu; besteak beste, Getxoko inbentario faunistikoa (ugaztunak, anfibioak eta narrastiak, itsasoko ugaztunak eta dortokak), Getxoko zuhaitz eta zuhaixken inbentarioa, Plentzia eta Bilano lurmuturreko faunaren ikerketa...



“Plan urbanistikoa direla-eta, basa-espazio guztiak okupatzen ari gara gizakiok. Honek bertokoak diren espezieen desagertzea dakar”

Zein da Xabier Uribe Kostan naturaren etsairik handiena?

Zalantza barik, gizakia eta gizakia baino, giza populazioaren dentsitate handia. Hemen, nolabait, Iparaldeko modelo urbanistikoa kopiatzen ari dira, hau da, hiriak gorantz hasi beharrean, zabalean hedatzen ari dira, etxe txikiak eraikitzen dituzte, bakoitza bere lorategiarekin... Bistarako paisaia atsegina izan daiteke baina naturarentzat oso kaltegarria da gizakiak inguru guztiak okupatzen dituelako; ez da basa-espaziorik geratzen. Honek, bertokoak diren espezieen desagertzea eta espezie oportunisten (edozein habitat-era egokitzten direnak) ugalketa dakar. Adibidez, gabirauak, belatzak, hainbat zuhaixka, sasitza, sastraka... ekologikoki oso espezie interesgarriak direnak, gero eta urriagoak dira.

Arazoa zein da?

Esan dizudana, egiten dituzten plan urbanistiko batiak. Geratzen zaizkigun baso apurrak, zelaiak... dena akabatzen ari dira, dena urbanizatzen ari direlako. Horrela segituz gero kosta baino ez zaigu geratuko eta hori legeak babesten duelako. Hori dela eta, nik nahia-go dut giza populazioa hirietan biltzea eta natura ahalik eta gutxien ikutu.

Zeintzuk dira, zure ustez, premia babestu behar diren inguruak?

Niretzat geratzen zaizkigun guztiak baina, batzuk aipatzeagatik, Bolueko padura, Kurtzioko hezegunea, Butrore ibaiako arroa, Gatikako ibarra, Berangoko Ku-

MUGITZEN DIRA

kullaga basoa honezkero nahiko hondatua badago ere, Bilanoko lurmuturra... Itsaslabarrak eta hondartzak bereziki zaindu behar dira; hortxe dugu Azkorri Gorrontatxe hondartza, dunak daude eta gainera badago bertan populazio relictua bat (leku horretan baino hazten ez dena), oso interesgarria... Gero beste kontu bat da zelan babesten diren espazio hauek.

Zelan babestu behar dira?

Ganorazko egitasmo integralak egin behar dira eta ez komertzialak eta populistak. Inguru bat zaindu nahi bada, ezin dira bertaraino bideak egin jendeak zapa-tak zikindu ez ditzan, ezin dira aulkia jarri bertan eta jendea animaliei janaria ematen utzi. Hori Boluen gertatzen ari da, eta adibidez, Floridako dortokak eta arratoiak izugarri ugaltzen ari dira, hauek intsektuen eta anfibioen larbak jaten dituzte eta horrela bertoko

ekosistema guztia galdu egiten da. Han egin behar den lehengo gauza da kartel bat handi bat jarri: ez eman jaten animaliei. Gauza bat da inguru bat babestea, eta beste kontu bat, parke bat egitea.

Zeintzuk dira, zure ustez, Uribe Kostan ditugun puntu beltzak?

Asko. Gortizeko araztegia inauguratu inauguratu zuten, baina oraindik ez dabil eta ur zikinak zuzenean itsasoratzen dira Bilboko itsadarrean gertatzen den moduan; Berangoko gune industrialak Gobelara egiten dituen isurketak, gainera duela gutxi sutea gertatu

da bertan; hezeguneen utzikeria...

Eta dauden egitasmo urbanistiko kaltegarrienak?

Kostalde osoz egin nahi den paseoa, Azkorrikoaren antzera. Honek gero gauza asko dakartza: aparkalekuak... Portu Zaharra eta Arrigunaga lotu nahi duen bide berria be astakeria iruditzen zait, badago bide bat, konpon dezatela eta ez kostaldea izorratu. Barrikan balio geologiko eta arkeologiko handia duten lurretan (oraindik, gainera, ikertu barik daudenak) eraikitze baimenak ematen ari dira, izugarria da...

Gaia aldatuz Xabier, mugimendu ekologistarik ez da apenas ikusten gurean.

Ez lehen beste, baina egon badaude. Hortxe dago Txipio bai, eta antza, lortu dute kirol portuaren proiektu hura geldiaraztea. Badaude ikerketa ambientalak egiten dituzten taldeak, adibidez, Lanus ormitolia taldea. Baina bai, oro har mugimenduak behera egin du. Kontua da, ekologia modan dagoela eta erakundeek moda horrekin bat egin dutela. Ematen du beira eta papera ontzi batean botatzea, nahikoa dela gure kontzientzia ekologikoa lasaitzeko. Baina, nire ustez, orain natura

UKronikak

Sopelana

—Unai Elorriaga—

Arratsaldeko 6:24 / Sagu bihurtu nindutenetik deseroso nabil mundutik. Izan ere ez da gauza bera sagu izatea edo pertsona izatea. Askozaz erosoagoa da pertsona izatea. Ni pertsona nintzanean gusturago ibiltzen nintzen. Janzten nituen, esaterako, udan Lacoste kamisetak eta Levis moreak eta neguan larruzko gonak eta larruzko botak eta larruzko txamarrak. Sagu naizenetik larru bakarria daukat eta berau urdina eta usain txarrekoa eta ile koipeztoak dituena eta hutsuneak han-hemen. Horrexegatik izaten naiz hotz neguan. Inoiz sagua izan denak jakingo du zer den hotza.

Hori dela-eta eguraldiaren arabera aldatzen naiz leku batetik bestera. Udan Sopelanako tabernetan egoten naiz. Itsasoari begira dauden tabernetan. Terrazak-eta dauzkaten tabernetan. Han egoten naiz udan surf egiten duten mutilei begira; sagua izan arren pertsona naizelako oraindik. Eta orduak ematen ditut han, erlojurik gabe.

Neguan Algortako kirol portura aldatzen naiz. Han pelikulak eta izaki lodiak ikusten ditut. Harribitxiak ere ikusten ditut, asko. Egun batean andre bati lapurtu nizkion zazpi eraztun baina biharamunean jantzi nituen eta etxera lau baino ez nituen ekarri. Saguen atzamarrak oso estuak dira. Oso deserosoa da sagu izatea.

Eta zergatik egoten naiz Algortako kirol portuan eta zergatik Sopelanako tabernetan. Hara joaten direlako nire lagunak eta hara joaten nintzelako ni pertsona nintzanean. Eta eroso zen lehen batetik bestera ibiltzea. Golf kotxeetan. Orain oinez joaten naiz eta ez da hain eroso.

Lagunek gainera ez naute ezagutzen. Lehengo batean oihuka hasi ziren guztiak ikusi nindutenean. Nuria ez, baina. Nuriak buztanetik harrapatu ninduen eta buruz behera jarri eta esan zien besteei "honek ematen dizue hainbeste beldur" eta balantzaka mugitu ninduen. Norbaitek esan dezake neure burua defenda nezakeela baina gustatuko litzaidake ikustea zer egingo lukeen berak Nuria bezalako emakume batek buztanetik hartuta edukiko balu.

Eta halaxe. Lagunak hurbiltzen direnean ezkatutu egiten naiz eta neguak han eta udak hemen, batetik bestera, Bilboko arropa-dendetan ezer erosteko aukerarik gabe. Hala ere, pozik nabil aspaldian, entzun dudalako, luze gabe, hipopotamo bihurtuko nautela.m

Jose A. Agirre

NOR ZEN?

Eusko Jaurlaritzako lehenengo lehendakaria

Nor zen Euskal Herriko hainbat kaleri eta plazari izena eman dien gizon hau? Bere alde politikoa ezaguna da baina gutxiak jakingo du Athletic-eko jokalaria izan zela. Ospe handia lortu zuen talde honetan. Aurrelari moduan jokatzeko zuen eta Espainiako txapeladun izatea ere lortu zuen lehoiekin. Ikasketak amaitzean utzi zuen taldea. Eta ikasketak aipatu ditugunez, abokatu titulua hogeita bat urterekin lortu zuela azpimarratu behar da. Laster hasi zen politikagintzan. Hogeita zazpi urte besterik ez zituela, Getxoko alkate zen eta aldi berean diputatua Madrilen. Lehenengo euskal gobernuko lehendakaria, 1936ko urriaren 7an Gernikan hautatu eta izendatua, kanpoan kainoi-hotsak aditzen zirela. Egoera gogorretan bizi eta borrokatu behar izan zuen Agirrek. Primo de Riveraren diktadura, Francoren garaian erbesteak, tartean autonomiaren aldeko borroka Errepublikara garaian, gerra Euskadin, mundukoa gero... Bere erbestera ihesaldia filme bat osatzeko moduko izan zen. Estatu Batuetako Columbia unibertsitatean irakasle, Nazio Batuen Erakundearen sorrerarako konferentzian parte-hartzaile, munduan bazterrik bazter ibilia euskaldunon tragedia azaltzen... Parisen hil zen, erbestean, 55 urte baino ez zituen. Donibane Lohizunen chortzi zuten.



Argazkian, Agirre ihesaldian moztortuta Gehiago jakiteko: Elkar Biografiak, Agirre. Egilea, Aitor Zuberogotia

Munarririkolanda

Adituen arabera, Berangon bertan, Munarririkolandako mendi lerroan barreiatuak sei trikuharrien arrastoak daude

Trikuharriak edo dolmenak Neolitikoen bukaera aldera eraikitzen hasi ziren Euskal Herrian. Lurrean zutik finkatuta dauden hainbat harriz eta hauek estaltzen dituzten zenbait harlauzaz osatuta daude monumentu hauek. Gorpuak chortzeko eratzten zituzten historiaurreko gure lagunak. Esan bezala Munarririkolandan sei trikuharrien arrastoak aurkitu zituzten aspaldian, lehenengo hirurak Jose Saratzaga algortarrak topatu zituen. Guk, mapa eskuetan, hara jo genuen arrasto horien bila eta lur altakur edo tumulu batzuk ezezik ez genuen besterik ikusi. Hala ere, aitzakia polita da mendilerro honetatik txango bat egiteko. Bista paregabeak dira!

BAZTERRAK



LEHEN

Iraganez doa denbora* beti

TELLETXE KALEA



ORAIN

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Argazkiak: Mikel Martinez

EREAGA

Bidaiak
Autobusak

T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO



basurto
algorta S.L.
altzariak

T: 4607162 - 4604244
telletxe 15, algorta

GAVRKO



GIZONENTZA-
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

Egun-kariak

prentsa eta
aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

EUSKALDUNON
GIDA
eta Posta Kodeak



ZER DAGO
GIDA HONETAN?

- 27.700 euskaldun
- 825 jarduera
- 400 herri
- 2.100 helbide elektroniko
- Internetekin lotura zuzena
- Euskal Herri osoko

1.000 pta.

EUSKALDUNON
GIDA

eskuratu!

FLASHback



1971 ehiztariak arrantzaleak

Dena Isidro tabernan hasi zen duela urte asko: ehiztari eta arrantzaleen arteko erronka, desafioa... Bada, zelan konpondu arazoa? Futbol partidua Fadurako futbol zelaietan. Hasiera hura izan zuen norgehiagoka jai bihurtu zen eta urtero ospatzen zen. Bitxikeria bat: jokatu ziren partidoko guztiak, eta ez ziren gutxi izan, enpatean amaitu ziren.

AZALTZEN DIRENAK

Zutunik: Cagonita, Cantiflas, Txixarro, el Burrero, Sabin, Txispi, Goiko, el Mudo, Txikilin, Urrestarazu (arbitroa), Sanz eta Tomas Makurturik: Sebe, Fanfa, Puchades, Barraka, Irureta, Markitos, el Lute, Galin, ?, Idarraga

OHARRA: argazki hau txirripaz aurkitu genuen Algortako azokaren zaharberritze lanak direla-eta, Torreñe kaleko kontenedore batean



MUNGIA

oKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA



TXIBERRI
e d a n t o k i a
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

Zertaz ari dira?



Polita da eta oso ondo pasatzen naiz. Amaia, 6urte.



Eh, ba animaliak, zuhaitzak, ba oso handia. Gauzak egiten dira. Mikel, 6urte



Eh, borobila da... zer gehiago esango dut?...Ba zaldiak, behiak eta ume txiki bat. Amaia, 6urte



Ze txikia da eta borobila. Gauza asko daude, bai... ez dakit orain zer. Pasatzen naiz oso ondo. Borja, 6urte.



Ze gustatzen zait asko, eh, jende asko dagoelako... borobila da eta ba zer? Ez zait ezer gehiago bururatzen. Clara, 6urte



Dago espazioan... ez dakit... ni lurrean nago...eta ba dendak daude, eta baita etxeak. Nerea, 6 urte

Zertaz ari diren baldin badakizu, bidali zure erantzuna UK aldizkarira:
171 posta kutxa, 48990 GETXO / Faxa: 94 491 13 37 / e-mail: aldizkaria@euskalnet.net
Asmatzen duzuenon artean bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu

Oharra: zozketan parte hartzeko, aldizkari harnepeduna izatea (ordaindu) edo euskara elkarte bakoitzeko zozketatuko da.



Niki zuriz, eskuinean jesarrira daudenak dira Alemanian egondako ikasleak

Aixerrotako ikasleak Hannover-en

Getxoko Aixerrota institutuko zortzi ikasle Hannover-en izan dira astebetez joan den irailean. Alemaniako hiri horretan Expo 2000 bisitatu eta beste ardurarik ere izan dute. Izan ere, Aixerrota institutua «uretan» murgilduta dago, *The Water Project* izeneko Europako Comenius proiektu batean hain zuzen. Gure ikasleek arlo horretan burutu dituzten lanen berri eman behar izan dute beste ikasle alemaniar, poloniar eta suediar batzuekin batera. Hona lanen izenburu batzuk: «Uraren sinbolismoa ametsetan», «Bolueko hezeguneko landaredia» (multimedia aurkezpena), «Landareen estrategiak ura kudeatzeko», «Ura Pintura Erromantikoan, Impresionistan eta Neopresionistan», «Ur hornikuntza, kontsumoa, kutsadura eta tratamendua». Talde horretako hiru ikasleek, gainera, Deiaiko kazetari gazteen bi sari irabazi dituzte institutuarentzat: argazki onenari eta euskara txukunenari. Artikuluaren izenburua, *Ura, bizitza*.

VILLABOTAS
JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

MOROTXO



TORRENE 13
48990 ALGORTA
TF. 4911882

CALENDOS
RIKI

UMEAK
GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543
AREETA



IDAHO / Argazki: Anor

UK ordaintzen ez baduzu

Harpidetza arrunta: 12 euro = 2.000 pta./urte

Diru hau eman nahi dut (markatu) o 3.000 o 4.000 o 5.000 o.....

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....Herria:.....Posta Kodea:.....

Telefonoa:.....email:.....

Kontu zenbakia (20 zenbaki) 0000 0000 00 0000000000

Fitxa hau postaz, faxez edo posta elektronikoz bidali dezakezu
UK Uribe Kostako Aldizkaria - 171 posta kutxa - 48990 GETXO
Tel - Fax: 94 491 13 37 / aldizkaria@euskalnet.net

kontu zenbakia eman nahi ez baduzu, sirtu dirua zuzenean gure kontuan: BKB 2095 0022 00 91-0248367-6
diru sarreran idatzi zure izena

UK, harpidetzaz baino ez!

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

Bodeguilla

Butron

gurean euskaraz!

Bidebitarte 5 ALGORTA



BADAUKAGU e-mail BAT

Brussela

Atzera Aurrera Etxera Jaso Irudiak Itxi Inprimatu Bilatu Stop

Helbidea: aldizkaria@euskalnet.net


Jendea Interesgarria Bilatu Internet e-mail Software

Ibon Mendibelzua, 35 urte, getxorarra>>>

Duela zortzi urte Bruselan bizi da>>>

Flandria, Belgika eta Europako hiriburuan>>>

“Bakoitzak berea ordaintzen du” <<<



BEHARREAN. Bruselako Euskal Autonomi Erkidegoaren Ordezkaritzan nabil lanean, Euskadiren Ordezkaritzako prentsa bulegoan. Hau da, EAEK Europar Batasuneko erakundeekin zuzen-zuzeneko erlazioak daramatzen bulegoan.

BELGIKA. Estatu honek oso ezaugarri berezia dauka, Europako iparraldeko “germanikoak” eta hegoaldeko “latinoak” bertan biltzen dituelako, hizkuntza, pentsamolde, kontzeptu eta bizitza zeharo ezberdinak estruktura administratibo berdinean baten azpian elkartuz. Neerlandera hitz egiten dutenak gehiengo dira, %60, eta frantses hiztunak %40, alemanieraz dihardutenak 70.000 dira. Brussela hiri elebiduna da baina Flandrian neerlandera da hizkuntza ofizial bakarra eta Wallonian, aldiz, frantsesa. Arazo linguistikoak, ofizialtasunak, diskriminazioa salaketak... hor daude beti, gure herrian bezala... Horrek be elkartzen gaitu.

JENDE ASKO. Belgikan talde etniko ezberdin asko dago. Bruselan, hiriburuan, Kongoko beltzak eta Iparrafrikako Magreben sortuak asko daude, frankofoniak ekarritakoak deskolonizazio prozesuak hasi zirenean 1960ko hamarkadan. Baina gero beste herri guztietako taldeak daude, Europar Batasunak eta bere inguruan sortutako bulego-lobby-entresa-interesena, Europa osotik etorritakoak: grekoak, finlandiarak, italiarrak, suediarak, portugaldarrak, daniarrak, espainolak, alemaniarak... Eta bertan egoitza daukaten hainbat erakundetan lan egiten dutenak, NATO eta UEO kasu.

GIRORA EGOKITU. Egia esan gutxi kostatu zitzaizkidan moldatzea. Euskal Herriko Iparraldean asko egonda eta bizita nago. Han euskal kultura eta frantses kultura daude. Kultura frantses orokor hura Bruselaraino iristen da, bertako ezberdintasun txiki batzuekin. Walloniarren kultura frankofonia ez da “gure” Iparraldekoen kultura frankofonotik gehiegi aldentzen: Frantziako telebistak berdinak ikusten direlako, egunkari berberak irakurri, administrazio eta teknizismoak berdin esaten diralako... Frankofonoen artean arazorik gabe sartu nintzen, hizkuntza ezagutzen nuelako eta bertako ezagun batzuen adiskideekin hasi nintzelako kalera joaten. Segituan egin ginen adiskide. Neerlandofonoekin, berriz, ondo moldatzen naiz neure jaioterria Euskal Herria delako. Hau da, hegoaldeko frankofonoekin hizkuntzak lotzen nau baina iparraldeko neerlandofonoekin “herri” sentimenduak. Benetan gustura sentitzen naiz batzuekin eta besteekin.

PENTSAMOLDEA ETA OHITURAK. Ohitura batzuk badira eta horiek apurtzea bekatu larria da. Ez dago inprobisazioarako aukera gehiegi, bisitak egiteko zitak alde aurretik eskatu behar dira, beti etxe barruan egiten dira festak, bilerak, afariak... bakoitzak berea ordaintzen du, bakoitzak bere botila darama festa lekura...

GUSTATZEN ZAIT. Arkitektura, hiriaren plangintza ederra eta Bruselak daukan abenida-bulebar, laku, parke eta baso ederrak. Garagardo mota ezberdin eta bereziak. Asteburu eta merkatu multietniko handiak. Antwerpeneko aberastasuna eta larunbata jendetsuak, Gante/Gent-eko edertasuna eta bizitza kulturala, Brujas/Bruggeko erromantikotasuna, Walloniako kanal industrialak eta abadiak. Eta, oro har, Belgikaren zentrotasuna: hiru orditara Amsterdam, Rotterdam, Den Haag, Kolonia, Luxenburg, Nancy, Parise, Lille edo Londres, besteak beste, hor dira.

EZ ZAIT GUSTATZEN. Trafiko izugarria, 1970. urtetik hona egindako sarraski urbanistikoa (“Europar auzoan” gehien bat -hemen “Brusseliazioa” deitzen diote-, espekulazio basatia gutxi batzuen poltsikoak ondo betetzeko), zerga altuegiak zerbitzu hain onak ez izateko, eguraldi grisegia...

EUSKARAREN ALDEKO FESTA. Flandrian 25 urtetan antolatuta da Iparraldeko ikastolen alde. Azkenekoan, elkartu ginen 300 pertsonetatik 35 bat Euskal Herriko seme-alabak ginen; besteak, berriz, flamenkoak, neerlandofonoak. Festan esandako edo abestutako tutik ez zuten ulertu baina han egon ziren egon beharreko hiru orduak, hasieran entzuten, txaloka gero eta azkenean dantzan. Oso ondo pasatu genuen denok.

Tot ziens, au revoir, laister arte, Ibon.

Inportaziozko zerbezarik onenak

Terraza zabala



basarte'na

Tel. 946 76 11 28
URDULIZ

Barrukoa

Taberna ^{Telletxe 5}



ALGORTA

SANTANA KIOSKOA

Prentsa eta aldizkariak

Santana kalea, Amaiarekin bat

BEROGAILU ETA ITUR-



T: 430 53

Sarikobaso 15 48990

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pent-
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixxarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO




BILBO MICRO

“1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO / Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213



Iñaki Elorriaga, Getxoko Kultur Etxeko zinema arduraduna da

MIKEL MARTINEZ

Zinema? Nahi beste

Aurten ere, abian jarri ditu Getxoko Kultur Etxeak Zinekluba eta Cinema Paradiso egitarauak. Mundu osoko filmak ikusteko aukera egongo da: brasildarrak, iraniarrak, alemaniarrek... eta gainera, prezio oso egokian, 350 pta. besterik ez.

Iñaki, badira urte batzuk Zinekluba abian jarri zenetik, ezta?

Ba, hamazortzi inguru. Urgull kaleko aretoan hasi zen Zinekluba eta 16 mm-tako pelikulak proiektatzen ziren. Ondoren gogoratzen dut Algortako Gran Cinemara pasatu zela, erre zen arte. Gurea zinemara pasatu zen orduan, gero Getxo Antzokira bueltatzeko. Cinema Paradiso-rekin bada-ramatzagu bederatzi bat urte.

Azaldu mesedez, zein den egitarau bakoitzaren filosofia.

Ezberdinak dira. Zineklubean, duela urtebete edo bi areto komertzialetan estreinatu ziren filmak eskaintzen saiatzen gara. Euren balio artistikoagatik interesa duten pelikulak aukeratzen ditugu. Cinema Paradiso-n, ordea, jeneralean film independenteak eta zirkuito komertzialetatik kanpo gertatzen diren lanak eskaintzen dira. Jatorrizko bertsoan izaten dira beti, hau da, azpitu-luekin, eta nire ustez euren adierazpen artistikoko mailarik gorenean.

Zelan aukeratzen dituzue filmak?

Baditugu kolaboratzaile batzuk, zinemazale porrokatuak direnak, sarritan zineklube- ra datozenak. Ekarpenak eta sugerentziak egiten dituzte. Gero Kultur Etxean film horien segimendua egiten dugu (noiz lor daitekeen, azpitu-luekin egina duen ala

ez...) eta ahal dugunean programatzen dugu. Baina film luzeei ez ezik, film laburrei ere egiten diegu tarte. Aukera polita dute inguruko errealizadoreek euren lanak erakusteko.

Orain arte egindakoaz balorazio bat.

Orokorrean Kultur Etxean oso pozik gaude egiten dugun zinema eskaintzak izaten duen erantzunarekin. Balantzeak positiboa izan behar du zalantza barik. Zinekluba oso ondo doa eta Cinema Paradiso baita ere. Duela gutxi, adibidez, film alemaniar bat proiektatu zen, alemanez gaztelarazko azpitu-luekin, eta Antzokia ia toperaino zegoen, ia bostehun ikusle. Politu da, ikusleak, gero eta gazteagoak direnak, zelan zaletzen diren ikustea.

Esan zeozer zinemara ez doanari

Denborapasa ederra da, eta oso aberasgarria, gainera merkea ere bada. Hortaz plan ona, datorrela! m

ZINEKLUBA

Asteazkenero Getxo Antzokian, 20:00
Ostegunero Areetako Gran Cineman, 20:00

CINEMA PARADISO

Ostiralero Getxo Antzokian, 22:00
sarrerak: 350 pta.

Itsas-gane topaleku berria

Aldai Patronatuaren eta etxegile baten arteko akordioari esker, herriko hainbat kultur zein kirol taldek badute lokalik Algortan. Akordio horren arabera, etxegileari etxebizitzak eraiki zitzaizkion lurrak utzi zitzaizkion eta trukean, beheko solairuan, Patronatuaren esku geratu diren hainbat lokal eraiki behar izan zituen. Lanak amaitu dira eta honezkerok Itsas-ganen besteak beste, Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak, Basozaleak Elkarte Botaniko eta Mikologikoak, Getxo Surf Taldeak, Algortako Arraun Taldeak, Getxoko Antimilitaristak eta beste talde batzuk badute non elkartu eta lan egin. Kulturarako topaleku berria.



Itsas-gane, Karitate kalea 1 (Tellagorri ondoan) Algorta

MIKEL MARTINEZ

Azaroak 24

Egun horretan, ostirala, Itsas-ganen aurkeztuko da aldizkari honek kaleratu duen Bitor Egurrolaren diskoa. Bittokek berak hiruzpalau kanta abestuko ditu bertan. Eta ondoren luntxa egongo da hara hurbiltzen diren guzientzat. Diskoa erosi nahi duenak han izango du aukera. Hitzordua, arratsaldeko zortzietan, Itsas-ganen.



MIKEL MARTINEZ

Etxebeltz music

Uribe Kostako girorik alternatiboena



Harrobi musikala lantzeko sortu zuten Etxebeltz

ETXEBELTZ MUSIC izatez kultur elkarte bat da, musikari estuki lotua dagoena. Euren helburua bertoko taldeak musika munduan abiaraztea da. Baina Etxebeltz gehiago ere bada. Etxe bat da. Bertan, taldeek entsaiatzeko bederatzi gela dituzte. Inguruko eta joera ezberdinetako hamazortzi talde bakoiti gehiago trebatu dira han. Goian, ganbaran, zuzeneko kontzertuak antolatzen dituzte astebururo. Aretoa txiki samarra da, kantariak gainean ditu entzuleak, giro berezia. Etxebeltzekoek be badute grabazio estudio bat Bermeon eta eurak aritzen dira grabazio lanetan merkatuko preziorik merkeenetan. Eta ez hori bakarrik, Europa mailako zirkuituan ere badaude, handik taldeak hona ekarrita... m

ETXEBELTZ MUSIC

Mezo 47, Astrabudua
(Leioatik abiatuta herriaren sarreran)
Posta Kutxa 109, 48950
www.ebmusic.com

Azaroaren 29an, asteazkena, ETB 1-eko programa hori zuzenean, Donostian, ikusi nahi baduzu, jar zaitetz segituan Bizarra Lepoan Euskara Elkartearekin harremanetan. Izan, ere gonbidapena jaso du elkarteak, publiko moduan azaltzeko. Bidaia ez du ezer kostatzen. Zatoz Klaudio eta Euzkitze ezagutzera! Eman izena lehen bait lehen: 94 491 13 37 edo 653 741 845 (urtzi izena eta telefonoa erantzungailuan).

Abenduren 3an Euskararen eguna ospatzen da. Hori dela-eta, Getxoko Udaleko Euskara sailak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Hauen artean zine proiektzioak, ipuin kontalariak, Anari abeslariaren kantaldia, txotxongiloak... Hortaz eme ibili, zer ikusi egongo da-eta!



Bene Markaida, betaurrekoduna, irakatsiko dizkizu kantak. Urrian egun zioten omenaldi txikiak da argazkia.

MIKEL MARTINEZ

Kabak&txanpanak

Gabonak laster helduko zaizkigu eta jai horietan ohizkoa izaten da kabekin eta txanpanekin topa egitea. Edari apartu eta burbuilatsu hauei buruz gehiago jakiteko ikastaro azkarra antolatu dugu UK aldizkariok eta Bizarra Lepoan Elkarteak. Bi arratsaldetan (azaroak 29-30) Itsaso Arana adituak txanpanzaleen eta kabazaleen zantalzak argituko ditu: zelan egiten dira, nola edan behar dira, zeintzuk aukeratu... Gainera kabak dastatu ahal izango dituzte ikasleek. Ikastaroak 2.000 pta. kostatzen du, UKko harpidedunek (ordaintzen dutenek) eta Euskara Elkarteok bazkideek 1.000 pta. besterik ez. Azkar ibili, hoguei laguntzeko baino ez dago lekurik eta. Izena emateko deitu UK aldizkaria 94 491 13 37.

Puntako bertsolariak

Ez da ohikoa, egun berean eta oholza beraren gainean, abenduaren 16an Getxo Antzokian ikusi ahal izango den bertsolari koadrila ikustea. Gaur egungo Euskal Herriko punta-puntako bertsolariak arituko dira elkarrekin: Andoni Egaña, Sebastian Lizasi, Jon Sarasua, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jon Maia, Anjel Mari Peñagarikano eta Jesus Mari Irazu. Horra hori kartela! Eta zer dela eta? Ba, Algortako Bertsolari Eskolaren XX. urteurrena ospatzeko jaialdia dugu. Gainera antolatzaileek sorpresaz batera saioa agindu dute. Badakigu abenduaren 16a urrun dagoela, baina badaezpada, berria aurreratzea erabaki dugu zure agendan leku bat egin dezazun; okasioak merzezi du!

EZ GALDU agenda

JABIER MUGURUZAREN kantaldia Lidia Pujolekin batera. Getxo Antzokian azaroaren 18an, larunbata. 800 pta.

XV UDAZKENEN KONTZERTUAK Getxo el Redentor elizan. Azaroaren, 21, 22 eta 23an, 300 pta.ren truke goi mailako musika klasiko entzuteko aukera izango duzu. Besteak beste, European Symphony Orkestrak, eta San Petersburgoko Bakarariak ganbara orkestrek joko dute.

FILM LABURRAK Bilboko Nazioarteko film

laburren eta dokumentalen zinemaldian parte hartuko duten hainbat produkzio ikusi ahal izango dira Getxo Antzokian azaroaren 27an eta 28an arratsaldeko 20:00etan. Gainera, sarrera dohainik da.

HAURREK ZINEA ikus dezakezte igandero Antzokian goizeko 12etan. Abenduaren 3an euskarazko Karamarroa filma ikusgai egongo da. IRUDIPUINAK Mattin eta Agirresaroberen marrazkigintza eta ipuingintza lotzen dituen ikuskizuna, azaroaren 30ean, Algortako Kultur Etxeko areto nagusian 19:30etan. Zazpi urteretik gorako umezi zuzendutako emanaldia da. Sarrera dohainik.


ERAKUSKETAK

Erromoko erakusketaren David Anguloren konposaketak abenduaren 5 arte.

BLUES kontzertua. The Holmes Brothers, abenduak 2 Antzokian, 20:00, sarrera 1.300 pta.

AKTOREA

“Jokalari berria”, hau da, aktore errebelazio saria eman zioten Markinako seme honi Euskal Herriko aktoreek. Fama deitzen den hori gorrotatzen du. Okinen modukoa izatea nahiago du, hau da, lana ondo bete eta kitto. **Testua: Esti Ezkerra / Argazkia: Mikel Martinez**



BERBETAN

Jekill doktorea eta Hyde jauna bezalakoa da bera, bizitza bikoitzekoa. Etxekoentzat Iñigo Ibarra da, baina taula gainean Ander Lipus bihurtzen da. Haren agenda estuan txoko bat bilatu zuen gurekin hitz egiteko. Izan ere, egun antzezten dabilen obrez gain, proiektu ugari ditu eskuartean Anderrek: estreinaldiak, zinemarako proposamen bat...

Ander ala Iñigo?

Publiko aurrean Ander. Izan artistiko moduan hartu nuen, alde pribatua eta alde publikoa bereiztearren. Profesionalki Ander Lipus naiz.

Izen xelebrea, ezta?

Antzerkigintzan hasi nintzanean Pessoa eta haren mundu imaginario hori, heteronimoena, asko gustatzen zitzaidan. Zerbait idazten nuenean izen bat erabiltzen nuen. Beraz, interpretaziorako Ander Lipus aukeratu nuen. Lipus abizen bat da, Madrilgo nire lagun handi batena. Bere abizenaren jatorria ez daki, ez zuelako aita ezagutzen. Ander izen euskalduna zelako hartu nuen, baina ez dauka inongo esanahi mistikorik.

Esaizidazu aktore izateko arrazoi bat.

Adibidez, beste mundu imaginario baten barruan sartzen zarelako.

Eta ez izatekoa?

Fama.

Antzezlanak egiteko orduan, nondik ateratzen duzu inspirazioa?

Madrilen zazpi urtez ibili nintzen, eta han egiten nituen antzerki obrek ez ninduten pertsonalki bete. Orain dela hiru urte edo Bilbora etorri nintzen, eta orduan hasi nintzen nire mundu estetiko edo filosofikoa lantzen. Lanak, estetika, ideiak nondik ateratzen ditudan ez dakit. Underground triologia honetan, adibidez, argi ikusten da Tom Waits-en eragina. Irakurketa asko egiten ditut, baina ez daukat besteak baino gogokoago dudun obrarik. Nik uste

dut batez ere nere esperientzia pertsonaletik abiatzen naizela. Bestalde, obrak lantaldean egiten ditut, eta nire esperientzia beste batenarekin nahasten da. Halako leherketa bat gertatzen da eta hortik ateratzen ditugu ideiak. Nik egiten dudana antzerkia, egiten den antzerki komertzialetik desmarkatu egiten da eskuarki. Komertziala hitzarekin esan nahi dut, nik ez dudala antzerkia dibertimendu huts bezala ikusten. An-

gustatzen jendea sartu den moduan irtetea, baizik eta aldaketa bat soma dezatela. Zentzu horretan, publiko aktiboa bilatzen dut, ez aktiboa obran parte hartzen duelako, baizik eta obran sartzen delako. Nire ustez hor dago aktore bantentzat nahiko garrantzitsua den helburua. Adibide bat jartzeko, gure Euskal Herrian daukagun tragedia ezin dugu ahaztu. Hortaz, nolabait tragedia hau neuk ere pairatzen dut, eta, agian zentzu

“Euskal Herrian dugun tragedia ezin dugu ahaztu. Nik neuk ere pairatzen dut, eta, zentzu horretan, nire obrak tragikoak dira”

tzertarian egungo gure gizaritatearen egoera batzuk, ideiak, plasmatu egin behar direla uste dut, eta sakontasunera joanda, gure herriaren arima islatu.

Batzuentzat nahiko obra gogorak egiten dituzu. Azken batean, sakontasun horretan sartzen bagara, antzerkian jorrotzen diren gaiak betiko gaiak dira: heriotza, amodioa, gerra...

Klasikoetatik hasita orain arte egin diren obrak arte. Nire obretan ere gai horiek lantzen ditut. Ez dira gure egunerokotasunaren erabiltzen diren gaiak, baizik eta sakonagoak. Jendeari iruditzen zaio nahiko inportanteak direla. Bestalde, nik beti bilatzen dut egoera katartiko bat publikoaren. Nire obrak egiten ditudanean ez zait batere

horretan, nire obrak tragikoak dira.

Aktorearentzat zer da errazagoa, eguneroko bizitza aurre egitea ala antzezlanari aurre egitea?

Niretzat antzeztea plazerra da, txikitatik daramadan plazerra. Gero, ikasketen bitartez, teknikak eta metodoak ikasi ondoren nire lanbidea perfektionatzeko joan naiz, baina oraindik jorrotzen eta ikasten jarraitzen dut. Eguneroko bizitza niretzat ederra da, baina antzerkiko bizitza ere oso ederra da. Grotoskik esaten zuen: “Una forma de vida es una forma para descubrir la vida”. Nik neure bizitzan aukeratu dut antzerkilaria izatea, eta egia esan, eguneroko bizitza batzuetan oso astuna

egiten da. Beraz, antzerkia da nire satisfakzio pertsonalak betetzen dituen esparru bat. Horrek ez du esan nahi bakarra denik.

Beldur eszenikoa noizbait galtzen al da?

Ez, ni beti egoten naiz urduri. Urduritasuna galtzen den momentuan ez dago energiarik. Badaude erlajazio teknikak beldur hori kentzeko. Hala ere, niri izugarri gustatzen zait publiko nire ondo-ondotan egotea, eta haien begiradarekin jolasten dut. Horretarako beldur eszenikoa gutxiago izan behar duzu.

Jokalari berria saria eman zizuten Euskal Herriko aktoreek. Lagundu ala baldintzatu al du horrek zure lana?

Sariek laguntzen dute, norbere lanbidean izena hartzen delako. Horrek, nolabait, bide zuzenetik zoazela adierazten dizu, batez ere, saria aktoreek beraiek ematen dizutenean. Baina beste detaile bat dago, famarena. Fama da izugarri izorratzen nauen zerbaite. Duela gutxi hitzaldi bat eman nuen Koldo Mitxelenan, eta bertan esaten nuen okinaren modukoa izatea gustatuko litzaidakeela. Okinak ogi ona egiten badu bezeria dauka. Aldiz, ogi txarra egiten badu, ez. Baina ez da inongo mundu arrosan sartzen, eta niri, egia esan, mundu arrosa, berde edo gris horrek ez dit grazia handirik egiten, sarritan norabidea galtzen delako. Nik erreibindikatzeko dut okin baten moduan, ez ezaguna izatea ez ezer, lanbidea ondo betetzea eta kito. Baina marketina marketina da, mundu honetan bizi gara, eta zer egingo diogu? Ahal dugun eta ondoen ezagun izate horrekin aurrera egingo dugu.

Ander Lipus Arriagan antzeztera helduko balitz, zeren seinale litzateke hori? Hor harrapatu egin nauzu, otsailean aktore moduan obra bat estreinatuko bai-

tut Arriagan. Ramon Barrearekin berau prestatzen nabil, eta “El hombre que confundió a su mujer con un sombrero” izena du. Nire ustez, obrak ahalik eta publikorik zabalarenagana heldu behar dira. Baina nik beti salatuko dut (eta espero dut horrela egiten jarraitzea) azpiegitura erraldoietan murgiltzen den antzerki batean bizi garela. Formato txikiko antzerki obrak erreibindikatzeko, herrietara hurbiltzea. Horrek ez du esan nahi beste bidea itxi behar denik, baina bakarrik azpiegitura handiko antzerkietan lan egingez gero, herriaz ahaztu, eta dirua eta famagatik, artea merkantzia bihurtzen da.

Monologoak ala taldekako lanak?

Biak, ez daukat inolako preferentziarik. Bilbora etorri nintzanean monologoak egiten hasi nintzen bakarrik nengoelako. Pixkanaka talde bat osatu dut, antzerki konpainia bat, eta orain oso gustura nago.


Aktore ala gidoigile?

Gidoiak idazten ditut baina ez naiz gidoilari sentitzen. Ni batez ere aktore sentitzen naiz, bestea txirripa hutsa izan da. Gauzak egin egin behar ditut, praktikan jarri. Gainera, oso eskasa naiz idazten. Nire planteiamenduei ordena jartzeko laguntza behar izaten dut, nahiko kaotikoa bainaiz. Nahiago dut antzeztea.

Zer obra antzeztea gustatuko litzazuke?

Nire ilusioa da 2003. urtean Macari, azkenengo ama deitzen den obra antzeztea. Obra badaukat, orain dirua eta esperimantzeko

“Formato txikiko obrak erreibindikatzeko, herrietara ditut, herrietara heltzeko”



Argazkiak: Islak eta itzalak

Egilea: Konrado Mugerza—. Eibar 1955



Biologoa eta irakaslea. Fotografia zaletasuna mutikotan sortu zitzaion eta 1980a aldera ekin zion serio argazkigintzari — kolorearen arloan— Irudi Taldean. Sariak, publikazioak eta erakusketak tartean, Getxo Fotografia liburua argitaratu berri du beste bi lagunekin batera.

Jan & edan

gaizka escudero



villabotas-ekoa

itsaso arana



jolastoki-koa

Perretxikoak pastarekin

Nik errezeta hau egiteko tripaki izeneko perretxikoak erabili ditut, baina beste edozeinekin prestatu daitezke. Hasteko, pasta, spagetiak adibidez, egosten jarriko dugu. Bestetik, ipini zartaginena oliba oliotan tipula biguntzen. Eginda dagoenean bota perretxikoak dadoetan zatikatuak (lehenago, jakina, ondo garbitu). Salteatu perretxikoak egin arte. Gero, Idiazabal gazta puska batzuk, gatz, piperrautsa, esnegain txorrotada bat eta koñak apur bat gehitu. Su motelean mantendu gaztaia ondo urtu arte. Mahairatu aurretik, platerean pasta paratu eta gainean saltsa gozo hau. m

osagaiak

olioa • gatz • kipula bat • perretxikoak • pasta • piperrautsa
koñak • esnegaina • Idiazabal gaztaia



MIKEL MARTINEZ

Añadak, Errioxa

Gure bodega osatzeko orduan, komenigarria izaten da urteek zer eman duten jakitea. Hementxe duzue Errioxako añaden karta on bat. Ardoak erosi nahi badituzue, kontuan hartu, baliagarria gertatuko zaizue. m

	1	2	3
1 ardoaren maila merkatuan			
K Kriantza			
E Erreserba			
EH Erres. handia			
2 urtean balorazio orokorra			
Añada oso ona, ardoa zahartzeko egokia			
Añada bikaina, zahartzeko ardo handi asko			
Zahartzeko ardo mota askotako añada			
3 añadaren bilakaera			
Bilakera prozesuaren hastapenetan dauden ardoak			
Ardo helduak, oraindik gehiago zahartu daitezke.			
Edateko ardoak, baldintza egokitan gordu daitezke			
Une gorenean dauden ardoak			

Iturria, Rioja Vintage Chart, 2000 Edition

GOGORATU

Txanpanaren eta kabaren inguruko ikastaro azkarra (egun bi) antolatu dugu. Izena emateko, 94 491 13 37, utzi izena eta telefono zenbakia erantzungailuan.

Perretxiko galduaren bila

Mikofagoak asko dira, batzuk mikofilo bihurtzen dira denboraren poderioz eta, azkenik, hauetako gutxi batzuk soilik heltzen dira mikologo izatera. Getxoko, Basozaleak Botanika eta Mikologia Elkarte lan horretan dabilta aspaldian.

Udazkena izaten da perretxikoen zein onddoen bilketarako garairik onena "zoaz mendira eta Gran Via ematen du horrek" esan digu Eduardo Fidalgo Getxoko Basozaleak elkarteko kideak "neurri handi batean errua edo, gurea, elkarte mikologikoa ere bada. Izan ere, mordoa daude, Uribe Kostan ia herri guztietan: Leioan, Getxon, Sopelanan, Plentzian, Berangon eta Urdulizen be badago beste taldetxo bat beharrean. Jakina, zaletasuna zabaltzen lagundu dugu".

Basozaleak 80ko hamarkadaren bukaeran sortu zuten. Lehen elkarte mikologikoa baino ez zen, baina orain botanikoa ere bada. Baina kontua ez da hor amaitzen, ahal dutenean eta jendea hurbildu ahala, lan esparrua zabaldu nahi dute eta Basozaleak benetako natur zientzietako elkarte bihurtu.

Orain udazkenean, astelehenero, asteburuan bil-




Eduardo Fidalgo ez da gauza bera esateaz nekatzen: Kontuz perretxikoekin, zalantzarik izanez gero, ez jan

dutako perretxiko zein onddoekin erakusketa txikia antolatzeko asmoa dute. Baina edonork jo deza ke elkartera jasotako perretxikoak jatekoak diren ala ez jakiteko, "eta bildu ez baditu ere, hona etor daiteke eta jendeak ekartzen duena ikusi eta bide batez, ikasi. Ni horrela hasi nintzen hemen; jendea lotsa barik etor dadila". Gainera egoitzan badute gaiari buruzko liburutegia. Duela gutxi amaitu da urtero antolatzen duten aste mikologikoa, txango gidatuak egiten dituzte, urte osoan zehar hitzaldiak, maiatzean jardunaldi botanikoak... gauza asko. Helburua: zaletua aditu

bihurtu. Eta ezin amaitu Eduardori bere perretxiko kutunaz galdetu gabe "jendeak onddoak beltzak est-

HARREMANETA RAKO

BASOZALEAK
Itsas-gane etxea
Karitate 1, Algorta



ADITUENGaleria

Jose Luis Iturrieta



Gastronomia eta kazetaria da, ezagutzen dutenek jan eta edan kontuetaz, entziklopedia ibiltaria dela diote. Izan ere, egun berean, goizean Bermeoko portuan egon daiteke, eguerdian Biasterin ardo baten aurkezpena dela-eta, bertan bazkaldu, eta gauean Bilbon edozein gertakizun sozialetan parte hartu. Eta, gainera, biharamunean, bere kronika egunkarian agertuko da.

Zer da ondo jatea? Niretzat garrantzitsua, produktua, lehengaia ona izatea da. Ondo jateko be, lagun onak eduki behar dira mahaian. Eta, azkenik, jateko kultura izan behar da.

Mirari gastronomiko bat... Gernikako azokan saltzen diren produktuak mirariak dira niretzat; edo Bermeon, -orain ez, baina lehen bai- arratsaldeko zazpitan arrantzunziak portura heltzen zirenean, eta han kutxetan, bisiguak, edo lebatzak bizirik ikustea.

Maridaje perfektua... Neuk prestatutako bokadilo berezi bat, eta Errioxako ardo gazte on bat, bere garaiko Artadi bat, adibidez.

Sukaldaritza onaren sekretua... Orain ez da egiten baina nire ustez, sukaldariak berak joan behar du merkatura, produktuak berak erosi, produktu onen atzetik ibili behar du beti, eta gero horrekin zer egin ikusi, bestelakoan mahaiaik galtzen du.

Maizta bat... Zalantzarik ez, euskal sukaldaritzaren aterpea izan dena, Juan Mari Arzak. Eta gero, nahiz eta bere ikaslea izan ez, baina ikasletzat hartu duena, Aitor Elizegi.


Gernikako aurtengo azoka... Urri osoan zehar egon naiz, azoka berezia da eta gauza oso onak aurkitzen dira beti. Pena dut jende asko hori baloratzen ez duelako. Gero eta gehiago gertatzen da horrelako azoka handietan, jendea eguna pasatzera besterik ez doa: txarriki bokadiloa jan, eguna pasa eta poltsa hutsik etxera.

Uribe Kostan jateko leku bat... Egon badaude baina izenak ematea beti izaten da konprometitua. Hori baino, zer jan esango dizut. Jendeak ez daki baina hementxe bertan produktu zoragarriak ditugu. Hortxe daude Plentziako txirlak, nik jan dudana gauzarik gozoenetakoa da. Edo angulak. Kontua da apenas daudela, ingurua hondatu dugulako.

Bart Telepizzara deitu nuen, pekatu egin nuen? Ez gizona! Jateko orduan, ona bada, edozer jan daiteke: pizza on bat, hanburgesa on bat... Hala ere, nik ez dut sekula deitu Telepizzara, italiar batek egiten dituenak jaten ditut nik. m

Azaroa, aza aroa

Garaian garaiko produktuak jatea da onena, halaxe diote behintzat espezialistek, eta horixe da gainera, naturalena. Guk Larrañazubiko Juan Ugarte jaunari egin diogu bisita eta azaroan gaudenez, ba aza aroa da eta argazkian azaltzen den barazki eder eta gozo hori eskaini zigun. Azaroa be, porru sasoia da. Bestalde, eguraldiak apurka apurka okerrera egiten hasi da, eta ba al dago hoztak ateratzeko udazkeneko indaba, gorri zein zuri, baino gauza gozoagorik? Datorren hilabetean atzera egingo diogu bisita Juani.



MIKEL M.

Erosketa etxera eroaten dogu!!



ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan:
9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan:
9:00-14:30

dena-ona supermerkatua

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

—UKri lagundu nahi badiozu, nahi duzun diru kopurua zuzenean sartu gure kontu zenbakian—

diru sarrean idatzi zure izena



Testua eta argazkia: Akaizte
Kamiruaga

Gure baserrietan animaliak haztea, loditzea eta gero etxeko kontsumarako hiltzea oso gauza arrunta izan da Euskal Herri osoan. Hiltzen zituzten animaliak: txarria, axuria eta ardia, ahuntza, untziak eta hegaztiak (oilok, oilaskoak...) izaten ziren batez ere. Behiak, zekorrak, etab., ezkontzetarako edo beste familia arteko ospakizun handietarako uzten ziren, euren haragi freskoa bazkari hauek oinarririk sendoena izaten zutelarik.

Abere-hilketak hauek txarriarena izan da tradizioz handiena izan duena orainsura arte barrez! Hirurogeiko hamarkadara arte baserri gehienetan hiltzen ziren txarriok, hala egin ezan, esaerak dioena gertatzen zen: Zerririk ez bada tegian, koiperik ez zartagian.

Txarriak urte osoan solo eta ortuko elikagaiekin gizentzen dituzte; patatak, azak, arbiak, erremolatxak, kalabazak, ezkurak... eta artzaintza guncetan gatzura ere ematen zaie. Ozala esaten diogu inguru honetan guzti horiekin egiten den nahasketari.

Txarri-hilteak San Martin bueltan hasten dira eta urtarila aldera amaitu. Hilketan ilbeheran egin beharra, lehen eta gaur oraindik ere bizirik dirauen sineskera da bestalde. Egun horretarako auzoko eta senitartekoei dei egiten zaie, lan ugariak guztien laguntza eskatzen dutelako, bai gizonena bai emakumeena. Praka bete behar badago ere, zereginak amaitu ondoren, bazkalostean, beti izaten da entretenimendurako astirik; karta-jokoan zein barriketan.

Txarria goizean goizetik hiltzen da. Horretarako lau-bost gizonen laguntasuna behar izaten da, txarri-tokitik atera, mahai baten gainean jarri eta guztion artean oratu ahal izateko. Mata-

rifeak bere lana egiten duenean emakume batek gero buzkantzak eta odolosteak egiteko erabiliko den odola jasotzen du ontzi batera, beti ere odola irabiatuz gogortuta gera ez dadin.

Lanik handienak gero datoz; hona hemen labur-laburrean hurrengo pausuak. Txerria hil ostean iratzez estali eta erre egiten da, erraustak kentzeko uraz garbitu, goitik behera zabaldu eta azkenean triapak atera. Ondoren leku altu batetik eskegi eta ordu batzuetan itxaron behar izaten da harik eta haragia hoztu arte. Honaino azaldutakoa era berdintsuan egiten da gaur egun ere. Baina okelen kontserbazioan lehenik hona bizi izandako aldaketak handiak izan dira.

Antzina, biharamunean txarria zatitu egiten zen eta ostean giharrak pikatu, hurrengo egunetan txorizoak egiteko erabili egingo ziren eta. Pernilek, hezurrek eta urdaiek ur handienak galtzen zituztenean gatzetan ipintzen ziren bospasei egunez gazun-asketan, gero beratzen edukitzen ziren eta azkenean eskegi, apurka-apurka sika zitezten. Hezurrak, hankak, belarriak eta muturrak urte osoan egoten ziren gatzetan.

Honekin guztiarekin hurrengo hilabeteetarako behintzat, gatzun-askak beterik zituztela, neguari aurre egiteko moduan izaten ziren gure baserrietarrak. m



Libiru

Ondo etorri danori ostabere Akabuko Puntera. Danok dakizuenez, geure atal honetan gehienetan bertoko euskaldunzaharrekaz egineko berbalditxoak ataraten duz, eurok dirareta eta hemen ingirun egin ixen dan (eta barriz egingo ez dan, akaso) euskera zahararen lekuko. Gaurkoan, beste kontu bategaz natortzue: Iñaki Gilisasti urduliztarrak egineko bere herriko euskeraren ganeko hiztegia. Batetik, hori libiru be jatorrizko euskeraren lekuko edertzat hartu ahal dalako; bestetik, euskalzale gazte honek isilean egineko beharri benetan amentagarri edo aipagarri deritxelako.

Testua: Andoni L.Losa
Argazkia: Mikel Martnez

Ondinokarren buruan dekot Iñaki Gilisasti eta biok alkarregaz egoneko a egune. Agur esatean, libiru bateko hiru ale emon eta esan eusten: "Koxi Andoni, ea zer deritozun nik egineko honeri beharri". Libiruaren uzena, "Urduliz Aldeko Berba Lapikokoa". Ganetik egineko lehenengo adikunean sano interesgarri eretxi neuntzen, eta ordurik hona hainbat ordu sartute nago orriak gora eta orriak bera. Laster konturatu nintzen honek libiruk (eta hemen ingirun egineko antzeko beste edozeinek, nik horren barri eukitekotan) aipamena merezi deula, eze bertoko euskalzale duztiok ezagutu beharrekoea dalako ustea dot.

Lehenengo eta behin, esan deigun Urdulizko Euskera Taldeko honek gaztek lan honetan

batutako 10.000 bat berba ezin geinkela Urdulizko euskeraren barruan bakarrik sartu, Uribe Kostako aldaera edota, zabalago joanda, Plentzia-Mungia deritzon azpieuskalkian baino. Beste gauza da ea hemen agertutako berbetan zeintzuk esaten diren gaur egun alboko beste herrietan, Barrikan, Plentzian bertan, Sopelan, Berangon, Getxon, noraino ailegaten dan... hori be ikerketa politte ixengo letike, egiteko dagoena.

Esan behar da Iñakik orain dala bost bat urte ekin eutsola hau hiztegia egiteari, eta urte bitan jo eta ke ibili zan "Gane" baserriko bere guraso eta gainontzeko ahai-deen ahoetan entzunezko berbak batzen. Hasikera batean, aurretik prestatutako hitz-zerrenda alfabetiko hutsak ixen beharrean egunean-egunean ataratako berbak batzen euzan Gilisastik, beluago




orden alfabetikoan paratuz eta lehenengo berbatik kanpora zabalduz zerrendak osatuz. Laguntzino legez, berba gehienak esaldi bat daroe alboan, bakoitzaren esangura hobeto ulertzearen edo. Hori bai, berbak eskribidutean egileak ez ditu gaurko batuaren arau ortografikoak erduztat hartu, entzuten dan moduen apuntatu baititu hitzak. 400 ordu inguruko behar gogor eta luzea da

10.000 berba eta esakera batu dauz Iñakik libiruan

honakoa, batez be kontuan hartute berak bakarrik eginekoa dala ezelangoa laguntzino ezta diru-subentzino barik. Laguntzino ezak trabak ekarri eutzezan Iñakiri tiradan ataratako 250 ale han-hemen zabalteko orduan, eta hori zala eta sano hedapen urrie euki eun. "Euskal munduko" txokoren batean ixen ezik ("Uretxindorra" liburudenda Bilbon, kasurako) Urduliz ingirun sakabanatu ziren garikoak (gaintzekoak). Gaur egun Iñakiren jaioterrian ondikarren eskura letike, "Ziripot" periodiku-dendak hainbat ale dekoz-eta, 1.000 pezetan bakoitza.

Aurrera begire Iñaki Gilisastik badeko zeregina, "Urduliz Aldeko Berba Lapikokoa" orraztuten eta osatzen ibili ezeze, beste barrikuntza ederra be badakar: ixen be, libiruen be-



Iñaki Gilisasti, altzoan bere semea, Eneko

tan agertzen diren esaldiak CDan graba ditu, berba bakoitzaren azentu eta entonazinoa ondo argi ikis deigun. CD eta libiru barriztuaren kaleratzea beste kontu bat da, aurrekoaren banaketa baino ahalegin handiagoa ekarriko leuskio-eta Iñakiri. Halan eta duzti be, holango gaien ganean geure alderdian topa letikezan beharrik urriak direla kontuan hartute, bigarren lan honek laguntza merezi deulakoan nago, duda barik.

Eta seguru nago be, beste

Libiruko hainbat adibide

Irabiatu: batir. "Estaki arrutzek irabiatuten bere"
Aldastayo: descuidado en el vestir o en el porte. "Yasteko eran lebarik estekonaaittik diñu aldastayo"
Guztibearen: a trancas y a barrancas. "Guztibearen in dau bide"
Ukutubearren pasa: pasar rozando. "Eskapada galanta innte nator, ukutubearren pasa dat kamioi bet"
Ogimamurri: miga de pan. "Platertxikerran dekusus ogimamurrik"
Mardo: racimo. "Mardo ederrakas deku aurten masti"
Astrapale: alboroto. "Sirku datorren bakotxen astrapale galante ataraten dau olau kotxe batek"
Gasigasan selan daun adittu: mirar como está de sal. "Gasigasan selan daun adittu barik atara daure maiera"

jakin behar den guztia

- * Itsaso Arana, Jolastoki jatetxeko someliere
- * Egun bi, azaroak 29/30, arratsaldeko 20:00etan
- * Kaba ezberdinak edango dira
- * 2.000 pta.
- (Harpidedunek eta euskara elkarteko bazkideek 1.000 pta.)

Oharra: 20 lagunentzako baino ez dago lekuri, lehentasuna, aldizkariko harpidedunek (ordaintzen dutenak) eta euskara elkarteko bazkideek izango dute

ikastaro
azkarra

Antolatzaileak:

uk

URIBE KOSTAKO
ALDIZKARIA



Bizarra Lepoan
Euskara Elkarte

"Tabernatxu" Jatetxea

- MENUAK ASTEAN ZEHAR
- ASTEBURUETAN GAUEZ, MENU BEREZIAK

Zientoetxe 39, GETXO. T: 491 16 61



- 1 IKASTARO TRINKOAK
- 1 UDA ETA NEGUA
- 1 GOIZEZ ETA ARRATZALDEZ
- 1 UMEAK, GAZTEAK ETA HELDUAK

Juan Bautista Zabala 12, 2. ALGORTA
460 00 38
460 63 41

**Ingelesa
Frantsesa
Alemanier**

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!
T: 460 38 90
Errotalde 18A
ANDRA MARI GETXO

SANTANA KIOSKOA

Prensa eta aldizkariak
**Santana kalea, Amaiarekin
bat**

I

Iñaki Bitxitegia

Ω

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 4302345

HOROSKOPOA

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Gauza on asko lortuko dituzu, meritoa zurea izango da, nahiz eta inor konturatu ez. Etxekoan artean aspaldiko partez, oso gustura sentituko zara. Egiozu kasu zure bihotzari, ez zara erratuko!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Zure zintotasunak, gauzak hain argi esateak, pertsona bat baino gehiago mindu dezake. Gogoratu diplomaziaz gauza bera esan daitekeela. Pozik sentituko zara; iraganeko arazoak... iragana dira.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Ingurukoan eragin txarretatik urrundu, ez zaitzez ergela izan, ekaitza dagoen onena porturako bidea hartzea izaten da. Denbora gehiago eskaini zure buruari eta zure lagunak ondo aukeratzeari.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Arreta handia eskaini zure inguruan geratzen den guztia. Ixuraz interesik ez duen zozozkerri garrantzirik ez emateak, lorpen handi baten atek itxiko dizkizu eta. Ez ezazu egunotan ezer sinatu.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Gozamenerako eta dibertsiorako garai ona baina ez, ordea, negoziotarako. Erabakiren bat hartu behar baduzu, itxaron. Aprobetxatu eta lagunekin, etxekoekin... dibertitu zaitzez.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Ohi baino lanpetuago ibiliko zara batez ere beharrez, baina honek irabaziak ekarriko dizkizu, bai arlo ekonomikoan eta bai pertsonalean ere. Edozein arazo konpontzeko gauza zara.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Egoera latz eta mingarrien aurrean patxada handia agertzen duzu eta horregatik jendeak zuzana jotzen du laguntza eske. Zure mugak ezagutzen badituzu, ez diozu inori hutsik egingo.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Nahiz eta zu konturatu ez, nerbioak jota zabilzta, lasaitu behar duzu. Lasaitasunetik abiatzen bazara hobeto egin diozu aurre etor daitekeenari eta gainera, ez duzu horrenbeste huts egingo.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Umilagoa izan eta onartu ezazu behingoz inor ez dela egia absolutuaren jabe. Besteei entzun, gogoeta egin. Zure iritzia argi eta garbi azaldu, eta ez utzi gauzak erdibidean.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Baten ala bestearen alde azaltzea eskatzen badizute, saiatu zaitzez alderdikeriarik gabe jokatzeko. Ez zaitzez jokoa sartu zuzenki ukitzean ez bazaitu. Jendea behar duzu, horregatik zabilzta batetik bestera.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Bikotarekin gozatzeko garai ona duzu. Ez badaukazu, harremanen baten aukera ikusten da. Zure eskutian dago, sedukzioarako zure gaitasuna topean dagoelako eta eskatzen duzun guztia lortzen duzu.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Oso sentikor egongo zara, eta baliteke malako bat baino gehiago isuri behar izatea, horrenbeste maite duzun pertsona eragindakoak. Oraingo minak merzei du, epe luzera saria jasoko duzu eta.

DENBORAPASA

ITSAS MOLUS- BALEAK HARRA	YOKA ZATIKA	BARAZKI GALDE	ALDREBE- SORGIN	BOKAL ERREPIKA
E				
NARAMA- ZUE KONTU				
E			ETA KRIS- TAUEN	JAKIAK
ZORO		OMEN		KONTSO- ZERBIT-
ESTOMA- ESTOMA		ERREKA HANDIA		BALJOA MUSIKA
ARI LEKU				
E		LARRUA AREA		
HERREN- LEGEZ	MOILEA		EZ EME AURPEGI- KO	
E			IHARDUN ALKOHO- LEN	
OTE IKARA		IZANA OXIGE-		
E		ALE LANDA-		


ezkerretik eskunera: balentzia, narrozko, ipuru, a, go, et, j, urdail, ga, nambien, han, zual, kela, ar, hira, ar, ere, oha, izu, oloak, GOTTIK BEHEK: lampena, itez, landienketa, zertean, are, are, non, itala, o, aza, eliza, la, aho, alia, gaitara, ce, jantrak

KOMIKIA

Azeri & Bivafego-ren

ABENTURAK

HALLOWEEN



hara! han doa azeri...
zer mozorro mota ote
darama?



bai, horixe! gizotso mozorro
honekin ikara- tuko dut eder-
to!



beste aldetik harra-
patu eta erasoko
diot!



ai, ene, amatxo
maitia!



BOA!



itzartu hadi, gizona!
zer? ez zaik nire
mozorroa
gustatu
ala?

BUKATU
DA

PIPERRAK

2. ATALA

* Abisua: fotonobela hau fikzio hutsa da

18

Gidoia: Xabier Paia & Jokin Aspuru
Argazkiak: Mikel Martínez

10:00

BITTOR EGURRO-
LAREN DISKOA
ENTZUN ZUTEN
(HONEZKERO SAL-
GAI!!!)... BATZUEK
PIZZA HOTZ IAN
ZUTEN... BESTE
BATZUEK EZ HAIN
HOTZ... ZERBEZAK
EDAN... HAU DA,
SEKIULAKO
PARRANDA EGIN
ZUTEN!.



Ai ama! Zer dun hau? Non nagon? Zer gertatu dun hemen? Goizeko hamarrak eta oraindikan ilea orraztu gabe... Hau piura NEREA! Uste det atea jo dutela... nor demontre izan daiteke?



Egunon, panpoxa! Badakit Consuelo nire emaztea, hemen dagoela eta berarekin hitz egin behar dut, hil edo biziko kontua da! Pasa naiteke?

Bai, bai... ba, salan ez dago, baina begiratu nahi badezu... aurrera. Portzierto, nola jakin dezu hemen dela Consuelo?

Sudurrak ez nau engainatzen; ehun kilometrotara usain nezake bere... eta gainera, erruloak jarraitu ditut.

ORDU ERDI GEROAGO SEI
TABERNAN, MIKEL
GOSALTZEN ARI DA



Hau kristoa! Consuelo, bere senarra... Zein izango ote da hurrengoa?

Ni naiz Mikel! Nerea. Hau sorpresa! Zer egiten dek hemen, ez al huen euskaltegira joan behar... asko pozten hi ikusteak!



Ba hori Mikel, klasera ez joatea, sasieskola egitea. Piperrak, baratzetako landare batzuen fruituak ere badituk, berdeak... oso goxoak...



Nik ere bai nago pozik. Geroago daukat klasea,, asike.. gosaltzera etorri naiz. Eta zu, fakultatera joan behar zinen, ezta?

Bai, baina gaur aurkezpena zen. Gainera, berandu zuan, biharamuna nian... eta ez nauk joan, piper egin diat.



Piper egitea? Ez dut ulertzen, zer esan nahi du?

Ah! Nerea! Badakit, erderaz «pimiento», ezta?

Goxoa izan behar du hireak!


Horixe, Nahi badek hemen ondoan dagoen «baratzera eramango» haut... ikustera.



Kontxo! Sudurrak engainatzen ez banau, nire senar ohia hemendik dabil! Egunon senar ohia! Sartu, sartu, gustatzen al zaizu zure ordezkoa? Hau bai benetako gizona eta ez zure modukoa. Gaurkoa nire bizitzako gaurik zoragarriena izan da!



Emakumezko guztiak berdinak zarete! Hau ez da horrela geldituko, banoa... baina.. itzuliko naiz!



Bai, ni ere banoa, euskaltegira joan behar naiz ... eta zuk, gizona, ez haserretu... dozena erdi hautsengatik zelan jartzen zaren...!

BESTE LEKU BATEAN...



Hemen duzu, Retegi, hitzartutako dirua: hamar milioi, 6.024 euro!!



Eta ez ahaztu, zuk partidua galdu eta horrela biok irabaziko dugu benetako partidua!



AAAAAAH!; Zer da zarata hori? Non nago? Zer jaso da hemen? Zer egiten du Klaudiok nire moduan jantzita?... Eta ni bere arropekin? UI, UI, UI...



Egunooooon, babyyy!! Ederto lotuten datzu neure txapela. Primeran pasatu gendun bart, e? Nik bai, behintzat... eta zu? Ez zara akordatzan? Olgetan egon gintezan...

Baina... zertaz ari da tipo hau? Nola ausartzen da bere atzapar zikin hori nire esku garbiaren gainean jartzen?

Ezin gogora nezake gertatutakoa! Ezin izan naiz gai izan horrelako zerbait egiteko. Ai ama! Errua alkoholak dauka!



Nire senar gaixoa! Nire bila etorri, lore eta guzti eta ni, berari barkatu beharrean, beste batekin ohean... bera baino txarragoa naiz, alu handi bat, horixe naiz ni!



Jesuuuuus! Hau txarrikortia! Egun osoa emon beharko dot hau garbituten, nire txarriek be ez deure horrenbeste loituten kortea... eta Arturito... txortan ibili gintzezela pentzetan... eta txantxetan arropak aldatu baino ez genduzan egin... eta bera, gixajoa, ez da ezertaz akordetan... Bah! Gizonezko guztiak bardinak dira!




Bizitza hau ez dago niretzat egina! Etxera itzuli nahi dut, nire azukre koxkorrekin!



Afaria, afaria... nik uste dut honek enpatxoa hartu duela gaur. Bah! Gizonezko guztiak berdinak dira!

Kaixo! Ortura eraman det Mikel eta oso, oso ondo, ondo pasatu degu!

Aupa... Consuelo! Usain gozoa, ezta? Dago prest afaria?



Afaaaaltzera babies! Piper beteak, gozozoak egin dodaz... eta hoztu egingo direz!



Gabon guztioi! Ze polita, familia berriko kide guztiak etxean eta amatxo Klaudio afaria zerbitzen. Neka-neka eginda nago, lan egun gogorra izan dut gaur, baina negozio biribila atera zait.



Zer deritozue afaltzen dugun birtartean telebista ikusten badugu? Lau t'erdiko finala da gaur eta Retegik jokutzen du. Laster da hastekoa partidua.

Arturito, laztanaaa... isildu eta pareu butakan piper bete eder bat dekot zureztat, eta. Zuri Consuelo, bihoztza, giu (gehiago) emongo dotzut, beharko dozu ta!




Frontoia bete-beterik dago... giro ezin hobea Faturako frontoian... Munduko txapelketa ez ezik diru asko dago jokoan gaurkoan... dirua... Retegiren alde jakina...

Bai ederra Retegiren popa!


Aberastuko naiz!!

HONEK EZ DAUKA LOTSARIK



Eta Arturoren branka?

Eta orain azken tantua... Itzela, sinestezina! 22-0 irabazi du Retegik, bera dugu munduko txapelidun berria... Ea gure lankideek kantxan elkarriketatu dezaketen...



Kabroi hori... galdu, galdu egin behar zuen...Ordainduko dit...



AAAAAAAAAAAAAAAAHHHHHH!!!!!!




Esan nizuen itzuliko nintzela bekatuaren etxe honetara! Garbituko zaituztet, guzti guztiak! Eta zu, Consuelo, lehenengo! Eta gero zure maitale zikin hori! Eta.. gero, beste guztiak!!!

bere kanten bilduma



non erosi

UK Aldizkaria, 94 491 13 37 GETXO
Kurkudi liburudenda, J. B. Zabala 8 ALGORTA
Egunkariak, Algortako etorb. 78 ALGORTA
Goizean, Orduña men. 1 GETXO
Telleze 13, ALGORTA



orain dela 30 urteko bere zazpi kanta eta aurten grabatutako beste bat

argitaratzailea: UK Uribe Kostako Aldizkaria